

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000003-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

**Lehena.**- Prozeduraren instrukzioarekin eta antolamenduarekin jarraitzea eta ez etetea horren tramitazioko epeak, oinarrizko udal-zerbitzuen funtzionamendua mantentzeko, hau da, aurrekontuaren exekuzio egokia bermatzeko.

**Bigarrena.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapitulua                   | Izena                   | Gehikuntzak |
|-----------------------------|-------------------------|-------------|
| 7                           | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 434.675,13  |
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA |                         | 434.675,13  |

#### FINANTZAKETA

| Kapitulua    | Izena             | Zenbatekoa |
|--------------|-------------------|------------|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 434.675,13 |
| GUZTIRA      |                   | 434.675,13 |

**Hirugarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Zarautzen, 2020ko maiatzaren 12an  
Alkatea